

Goi Eskola Politeknikoko ikasle den Eva Alijak Emaus lehiaketan 2.saria lortu du

2007/05/24

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko ikasle den **Eva Alijak**, **Emaus Fundazioak** antolaturiko diseinu lehiaketan 2.saria lortu du.

Lehiaketaren ardatza, **zaborretara bota ohi ditugun objectuak berrerabili** eta artea sortzea da. Helburu horretan oinarrituta, Evak lau haizebide-sareta elkarri lotuta, lanpara karratua egin du. Siplea baina polita.

Eva Alija eibarrak Ingenieritza Teknikoa Diseinu Industrialean ikasketak burutu ditu Mondragon Unibertsitatean eta aurten Nantes-era doa Ecole De Design Nantes Atlantiques (EDNA-n) bere ikasketak jarraitzera, M.U.ko Goier programaren bitartez.

Emausen **EkoCenter** aretoan daude artelanak, Donostiako Belartza industrialdean, eta irailaren amaiera arte ikusi ahal izango dira: goizez 10.00-13.00etara eta arratsaldez 16.00-19.30etara.

